

AURREINSKRIPZIOA

Irailaren 7tik 30era

Kirol eta
Hezkuntza
Proiektua

XLIII Ipar Eskiko Eskola Kanpaina 2027

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



“Ipar Eskiko Eskola Kanpaina”-ko XLIII. edizioa

Ipar Eskiko Eskola Kanpaina hezkuntza eta kirol proiektuak, XLIII.garren edizioa du aurtengoa. 1985etik etenik gabe garatu den eta gure piriniar ibarretan enplegua sortu eta garapen giza-ekonomikoa mantentzen laguntzen duen ekimen hau, NICDO, S.L.-k antolatzen du. Era berean, Nafar Gobernuako Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren, Hezkuntza Departamentuaren eta Lurralde Kohesiorako Departamentuaren laguntza, eta Iزابako Udalaren zein Otsagabiako Udalaren babesa du.

Proiektu honek, besteak beste, honako helburu hauek bete nahi ditu: kirolaren eta jarduera fisikoa burutzearen areagotzea bizimodu osasungarri baten funtsezko elementu bezala, egunerokotasunetik atera eta desberdina den natur inguru batean hezkuntzarako gun bat aurkitu, autonomia eta norbanakoaren ekimena garatu partehartzaileen autoestimua indartuz, erantzukizuna sustatu, eta norbanako, taldeko eta gizarteko balore batzuk irakatsi, pertsona arduratsu eta solidarioak garatzen laguntzeko.



2027 urteko Ipar Eskiko Eskola kanpainen naturan burutzen den kirola, populazio dentsitate txikiko eremuetan jatorri desberdinetako ikastetxeen arteko elkarbizitza, ingurumenaren zaintza eta Irati-Abodi edo Larra-Belagua bezalako natur-eremu pribilegiatuetan naturarekin bat egitea balioan jartzen jarraituko dugu.

1.- PARTE HARTZEA ETA IRAUPENA



PARTE HARTZAILEAK

IRAUPENA

- Lehen Hezkuntzako 6. maila
- Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila
- Funtzio dibertsitatea duten pertsonak

5 egun
(ASTELEHEN GOIZETIK
OSTIRAL ARRATSALDERA ARTE)

- ***Ikaslego berak ezin izanen du Ipar Eskiko Eskola Kanpainan eta Eskolako Bela Kanpainan parte hartu. Bai, ordea, ikastetxe bereko ikasmaila edo hizkuntz eredu desberdinetako ikasleek.*** (Adb. "A" ikastetxeko LH 6. mailak Bela Kanpainan parte hartzen du eta "A" ikastetxeko DBH 1. mailak Eski Kanpainan parte hartzen du. – Adb. "A" ikastetxeko D ereduko LH 6. mailak Bela Kanpainan parte hartzen du eta "A" ikastetxeko AG-PAI ereduko LH 6. mailak Eski Kanpainan parte hartzen du.)
- ***Hezkuntza Bereziko ikastetxeek*** bi Kanpainatan partehartzea bermatua izanen dute. Desgaitasuna duten pertsonen edo egoera zaurgarrian dauden pertsonen arreta eskeintzen dieten gainerako zentroek zozketan parte hartuko dute eta, azken hauentzat, gehieneko partehartzaile kopurua zentroko 20 pertsonatakoa izanen da.
- ***Landa eskolen kasuan*** bi edo hiru urtetik behin gradu anitzeko unitateko ikasleen partehartzea onartuko da (4., 5. eta 6.). Gainerantzeko eskoletan, bi urtetik behin, lehen hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleekin (5. eta 6. maila) parte hartzea onartuko da, baldin eta ikasle kopurua 50 edo txikiagoa bada.

2.- OSTATUAK

Parte-hartzaileek, batez ere, **Izaban** eta **Otsagabian** hartuko dute ostatu, baita, Erronkaribarko zein Zaraitzu Ibarreko beste herri batzuetan, ere: **aterpeak, landa-etxeak, kanpinak, apartamentuak, hotelak eta ostatuak.**

- *Mantenu eta ostatu gastuak berberak dira eskainitako aukera guztietan.*
- *Antolatzaileek partehartzaileak ostatuetan banatuko dituzte eskariak eta kanpainako premiak kontuan hartuz.*
- ***Astelehenean parte hartzaile bakoitzak hamaiketako eta bazkaria eraman beharko ditu. Kanpainako mantenua asteleheneko afariarekin hasiko da.***

3.- JOAN-ETORRIAK

Parte-hartzaileak Izaba edo Otsagabiara (edo ostatu hartzen duten herrira) eramatearen ardura parte hartzen duen ikastetxearena da. Beraz, ikastetxe bakoitzari dagokio astelehenean bertara hurbiltzeko eta ostiralean etxera itzultzeko autobus zerbitzua kontratatzea. Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusitik autobus hauek neguko gorpilak izatea gomendatzen da.

Parte-hartzaileak Izabara edo Otsagabira **ASTELEHEN GOIZEAN**, antolakuntzak zehaztutako orduan, iritsi beharko dira. Ostatua beste herriren batean izanez gero, kasu bakoitzean partehartzaileen ekipaiaren kudeaketa adostuko da.

Etixerako itzulera, **OSTIRALEKO BAZKARI OSTEAN** izango da.

Egunero, herri bakoitzetik eski-pistetara edo arratsaldeko jardueretara joatearen ardura antolatzaileena da.

4.- ESKIATZEKO MATERIALA ETA EKIPOA

Antolatzaileek partehartzeileen esku eski-ekipo osoa jarriko dute: **IPAR ESKIKO ESKIAK, BOTAK eta MAKILAK.**

Gainerako ekipoa partehartzaile bakoitzak eraman beharko du eta, garrantzitsua da ongi markatua egotea (IZENA), galdutako gauzen kudeaketa errazten bait du.

- **ASTELEHENEKO HAMAIKETAKOA, BAZKARIA eta URA.**
- **LO ZAKUA (ikasleek soilik)**
- Kirolerako arropa egokia (kamiseta eta elastiko termikoa beroa mantendu eta izardia iragazteko, forru polarra edo jertsea gorputzeko tenperatura mantentzeko, kapusaia eta eski-prakak beroa eta iragazkaiztasuna gehitzeko, galtzerdi termikoak, lepokoa, txano eta elurretako bi eskularru pare hotzaren aurka babesteko).
- Aldagarriak, kaleko arropa, kirol eta mendiko oinetakoak eta berokia
- Norberaren garbitasunerako produktuak eta esku-zapia
- **PISTETARA IGOTZEKO MOTXILA, EGUZKITARAKO +50 BABES-KREMA, HIRUGARREN MAILAKO EGUZKI-BABESEKO BETAURREKOAK (BISUTS BETAURREKORIK EZ EKARTZEA GOMENDATZEN DUGU), EZPAINETARAKO BABES-KREMA eta UR-BOTILA.**



5.- OSASUN LAGUNTZA

Izaban edo Otsagabian jasotako **osasun laguntza parte-hartzaile bakoitzaren aseguruari dagokiona izango da**, beraz, bakoitzak bere **osasun-txartelaren kopia** ekarri beharko du.

Halaber, NICDO, S.L.-k istripu, mediku-arreta eta erantzukizun zibilerako asegururako poliza bat du, hala nola osasun-arreta anbulantzia serbitzua.



6.- TXANDAK

TXANDAK IZABA	TXANDAK OTSAGABIA	DATAK
TXANDA 1	TXANDA 1	Urtarrilaren 11tik urtarrilaren 15era
TXANDA 2	TXANDA 2	Urtarrilaren 18tik urtarrilaren 22ra
TXANDA 3	TXANDA 3	Urtarrilaren 25etik urtarrilaren 29ra
TXANDA 4	TXANDA 4	Otsailaren 1etik otsailaren 5era
TXANDA 5	TXANDA 5	Otsailaren 9tik otsailaren 12ra (Ihauteri Astea) (LAU EGUN)
TXANDA 6	TXANDA 6	Otsailaren 15etik otsailaren 19ra
TXANDA 7	TXANDA 7	Otsailaren 22tik otsailaren 26ra
TXANDA 8	TXANDA 8	Martxoaren 1etik martxoaren 5era
TXANDA 9	TXANDA 9	Martxoaren 8tik martxoaren 12ra
TXANDA 10	TXANDA 10	Martxoaren 15etik martxoaren 18ra (19a jai) (LAU EGUN)
TXANDA 11		Apirilaren 5etik apirilaren 9ra
TXANDA 12		Apirilaren 12tik apirilaren 16ra



7.- PARTE HARTZEN DUTEN TALDEEN ARDURADUNAK

Eski Kanpainak ekintza guztietan partehartzaile guztiak zainduko ditu, eta horretarako talde tekniko hau izanen du: zuzendari bat, bi koordinatzaile, eski begiraleak, arratsaldeko jardueretako begiraleak eta eski biltegiko langileak.

Ikastetxe bakoitzak parte hartzen duten haur guztiak dagokien **IRAKASLEEKIN** egotea bermatu beharko du (beheko ratioa oinarritzat hartuz). Irakasleek erantzukizun zuzena izanen dute ikasle partehartzaileen gain. **Oro har ikastetxe bakoitzak gehienez 120 plaza izanen du.**

Irakasle bakoitzeko **gutxieneko** ikasle-kopurua ondokoa litzateke:

IKASLEAK IRAKASLEAK

12 arte	1
12-30 artean	2
30-50 artean	3
50-80 artean	4
80-120 artean	5-6



Irakaslegoaren zein pertsona arduradunen betebeharrak

- Partehartzaileen arduradunak izanen da.
- Partehartzaileen bidaia antolatu eta joan-etorrietan lagunduko dituzte.
- Eski eta aisialdi begiraleekin batera lan egingo dute, eskolek eta jarduerak ongi funtziona dezaten.
- Partehartzaileekin ostatu desberdinetan ostatu hartuko dute, otorduetan lagunduko dituzte, ostatuak elikadura alergia edo intolerantziak eta elikadura bereziak modu egokian zaintzen dituztela gainbegiratuko dute, familiek hala baimentzen dutenean partehartzaileen botikak hartzea gainbegiratuko dute eta ostatuetakako ordutegi eta arauak betetzeaz eta ordenaz arduratuko dira.
- Arratsaldeko jarduerak hasi baino lehen dagoen aisialdian partehartzaileak lagunduko dituzte, baita jarduera horietan ere, puntualtasuna zainduz.
- Eski pistetan beti, gutxienez, irakasle edo pertsona arduradun batek erraz aurkitzeko moduan egon beharko du, ikasleren bat medikura lagundu behar izatekotan. Norbaitek pistetatik kanpo edo erraketa ibilbideetatik kanpo jardueraren bat egin nahi izanen balu, koordinatzailea jakinaren gainean jarri beharko luke eta bere ardurapean geratuko da.
- Osasun-zentrora joan behar denean partehartzaileak lagunduko dituzte.
- Astean zehar suerta daitezkeen jarrera edo gatazken inguruan hartu beharreko edozein erabakitan arduradun nagusiak izanen dira, beti Kanpainako zuzendaritza-taldearekin koordinazioan.
- Astean zehar zuzendaritza-taldeak deitutako bileretan parte hartuko dute.
- Asteko balorazioa galdetegi baten bidez egingen dute.
- *Baldintza hauek betetzea beharrezkoa izanen da hurrengo deialdietan kanpainen parte hartu ahal izateko.*
- *Antolatzaileek parte hartu duen ikastetxe guztien balorazioa egingo dute, lehen aipatutako arau guztiak nola bete diren baloratu, eta hurrengo kanpainetan balorazio hori kontuan hartuko dute (zozketan lehentasuna emanez).*

8.- HEZKUNTZA ETA KIROL JARDUERAK

GOIZAK: IPAR ESKIKO ESKOLAK

Aste honetako helburu nagusia, bai ikaslegoak, bai irakaslego laguntzaileak, ipar eskia ikastea edo ipar eskiaz dakitena hobetzea da.

Ipar eskia neguan eta mendian egin ahal den kirol osasuntsu eta osoena da eta, bai Erronkaribarrak, bai Zaraitzu Ibarrek natur-inguru zoragarriak eskaintzen dituzte kirol honetaz gozatu ahal izateko.

ESKI-ESKOLEN ORDUTEGIA

IZABA	1.TXANDA	2.TXANDA	OTSAGABIA	1.TXANDA	2.TXANDA
Izabatik irteera	8:30	10:00	Otsagabiatik irteera	9:00	10:00
Eskolen hasiera	9:30	11:00	Eskolen hasiera	10:00	11:00
Eskolen bukaera	13:30	15:00	Eskolen bukaera	14:00	15:00
Izabara heltzea (ggb)	14:00	15:30	Otsagabiara heltzea (ggb)	14:30	15:30

ARRATSALDEAK: HEZKUNTZA ETA GIZA-HARREMANETARAKO JARDUERAK

Arratsaldean egiteko jarduera osagarri gisa, giza-harremanak sustatzeko jarduera hezitzaile hauek proposatzen dira:

IZABA – ERRONKARI IBARRA:

- Erronkariko Natur Interpretazio Zentrora bixita
- Erronkariko Julián Gayarre Museora bixita
- Zinea-Antzerkia
- Crossfit
- Gaueko zeruaren ezagutza eta behaketa
- Herri kirolak
- San Juan ibilbide gidatua
- Ekoginkana
- Xeia



OTSAGABIA – ZARAITZU IBARRA:

- Otsagabiako Natur Interpretazio Zentrora bixita
- Zinea-Antzerkia
- Koreografia
- Esku-lan tailerra
- Gaueko zeruaren ezagutza eta behaketa
- Herri kirolak
- Xeia



Ikastetxeek jarduera hauek onartuko dituzte, proposamen gisa beste programa osagarriren bat (ahal den neurrian burutuko dena) aurkeztu ahal badute ere. Dena den, arratsaldeko jarduerak ongi atera daitezen, **begiraleak eta irakasleak dira aldi berean jardueraren arduradunak.**

Antolakuntzak aurretik zerrendatutako hezkuntza-jarduerak aldatu ahalko ditu etengabeko egokitzapen eta hobekuntza planarekin bat.

9.- PARTE-HARTZAILEEN KUOTAK

NORBANAKOAREN KUOTA

SARTZEN DIREN KONTZEPTUAK

230 €

Lau egunetako
txandetan kuota 184
€-koa izanen da

- Ostatua eta mantenua
- Eski materialaren alokairua
- Pistetara sarrera eta eski eskolak
- Pista eta arratsaldeko jardueretara garraioa
- Arratsaldeko jarduerak
- Anbulantzia
- Antolakuntza

- Irakasleek ez dute kuotarik ordaindu behar.
- Ikasleen kuotan ondoko beherapena ezarriko da, **kasu bakoitzean beherapen bakarra ezarri (abantailatsuen):**
 - **FAMILIA UGARIAK EDO GURASO BAKARREKOAK** (ikastetxeak ikaslegoari beharrezko dokumentazioa eskatu beharko dio maila orokorrekoak edo maila berezikoak diren egiaztatzeko).
 - ✓ %10 maila orokorreko familia ugarien edo guraso bakarrekoen kasuan
 - ✓ %20 maila bereziko familia ugarien edo guraso bakarrekoen kasuan
 - **KANPAINAKO EDIZIO BEREAN FAMILIA UNITATE BEREKO BI EDO KIDE GEHIAGOREN PARTE HARTZEA** (ikastetxe desberdinetan parte hartu arren) %10 -eko beherapena ezarriko zaie.
 - **KALTETUTAKO EGOERA GIZAEKONOMIKOAN DAGOEN IKASLEGOARI ZUZENDUTAKO DIRUZ LAGUNDUTAKO PLAZAK:** %80 -eko beherapena ezarriko zaie (*) (**)

	FAMILIA UNITATE BEREKO KIDEAK	MAILA OROKORREKO FAMILIA UGARIAK edo GURASO BAKARREKOAK	MAILA BEREZIKO FAMILIA UGARIAK edo GURASO BAKARREKOAK	KALTETUTAKO EGOERA GIZAEKONOMIKOAK DAGOEN IKASLEGOA
	%10eko beherapena	%10eko beherapena	%20ko beherapena	%80ko beherapena
5 egun	207 €	207 €	184 €	46 €
4 egun	165,6 €	165,6 €	147,2 €	36,8 €

(*) Eskera aurkezten duen ikastetxe bakoitzari gutxienez **DIRUZ LAGUNDUTAKO PLAZA BAT** egokituko zaio.

(**) Kaltetutako egoera gizaekonomikoan dagoen ikaslegoarentzat **diruz lagundutako 200 plaza** eskainiko dira. Horretarako, kaltetutako egoera ekonomikoan dagoen ikasle goa eskolatua duten ikastetxeek, eskaera-agiria -atxikituko den eredia jarraituz- mail bidez bidali beharko dute info@esquiescolar.com helbidera **plazen zozketa eta esleipena egin ondoren eta urriaren 23a baino lehen**, ondokoa kontuan hartuz:

- ✓ Eskaera-agiria Ikastetxeko Zuzendariak sinatu beharko du. Berak, Zuzendaritza-taldearen laguntzaz, bai, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bildutako, bai, ikastetxeak jasotako eta, kasu honetan, EDUCA kudeaketa-sisteman, “kaltetutako egoera giza-ekonomikoa duen eta/edo giza-laguntzen menpekora den familia bateko partaide” atalean isladatuta, Ipar Eskiko Eskola Kanpainan parte hartu nahi duen eta kaltetutako egoera giza-ekonomikoan dagoen ikaslegoarekin zerrenda bat osatuko du (jasotako datuetan, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudia jarraituko da). Ipar Eskiko Eskola Kanpainan parte hartu nahi duen kaltetutako egoera giza-ekonomikoan dagoen ikaslegoaren zehaztea Ikastetxeko Zuzendaritzaren ardura izanen da.
- ✓ Ikasle bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio eta ikastetxeari posta elektronikoki bat zuzenduko zaio zenbaki hauek jakinarazteko.
- ✓ **Urriaren 26an 200 plaza** horiek esleitzeko zozketa egingen da, ikasle horiek 2027 urteko XLIII Ipar Eskiko Eskola Kanpainan **%80ko dirulaguntza jasoz** parte hartu ahal izateko.
- ✓ Eskaera-agiria aurkeztu duen ikastetxe bakoitzari zozketaren akta posta elektronikoki bidaliko zaio.

10.- AURREINSKRIPZIOA

DATAK **ORDUTEGIA** **TELEFONOA** **E-MAIL-A**

Irailaren 7tik 30era 9:00-15:00 **697596253** info@esquiescolar.com




BETEBEHARRAK

- **ESKAERA** e-mailean zehazten den web galdetegiaren bidez egin beharko da. **Beharrezkoa izanen da parte hartzea ezinezkoa den txandak zehaztea.**
- **EZ DA ORDAINKETARIK AURRERATU BEHAR AURREINSKRIPZIO KONTZEPTUAN.** Hala ere, **izen-emate kopurutik 20€ PLAZA ERRESERBA bezala hartuko dira.** Izen-ematea zehaztean, bajaldiren bat egonez gero, 20€ hauek kobratuko dira.
- **Funtzio dibertsitatea duen ikaslegoak parte hartuz gero, aurreinskripzio-fitxan jakinaraziko da antolaketa on bat aurreikusi ahal izateko (ostatua, garraioa, eski-taldeak, ...).**
- Ikastetxe bat baino gehiagok eskaera batera egitekotan, **DOKUMENTU GEHIGARRI BAT IGORRI BEHARKO DA** non ikastetxe guztien izenak agertu beharko diren, ikastetxe bakoitzari dagokion ikasle eta irakasle kopurua, adina eta hizkuntza zehaztuz.

11.- IZEN-EMATEA

ORDUTEGIA **TELEFONOA** **E-MAIL-A**

9:00-15:00 **697 596 253** info@esquiescolar.com



BETEBEHARRAK:

- Kaltetutako egoera giza-ekonomikoan dagoen ikaslekoa izanez gero, **URRIAREN 23a BAINO LEHEN, ESKAERA** inprimakia bidali diruz lagundutako 200 plazen zozketan parte hartu ahal izateko.
- **Parte-hartzaile guztien izen-abizenen zerrenda-orria** mail bidez bidaltzea. Zerrenda-orrian ondorengo datuak agertu beharko dira: izena eta abizenak, generoa, ikas-maila, hizkuntza (gaztelania edo euskara), eta beherapenen bat baldin badagokio, zein den arrazoia.
- **ABENDUAREN 18a** baino lehen, antolakuntzatik ikastetxeetara bidaliko den **ORDAINKETA FITXA**-n agertuko den **ORDAINKETA** egin. **Aurreinskripzioa eman duen ikasleren bat izen-ematean baja bada, PLAZA ERRESERBA bezala hartuko diren 20€ak galduko dituela gogorarazten dugu.**
- Izen-emate kuotak Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio, S.L. (B-31931959) titularra den ondorengo bi kontu hauetako batean ordaindu behar dira:

LEKUA	KONTU-ZENBAKIA
IZABA	ES46 2100 8988 8102 0000 9975
OTSAGABIA	ES63 2100 8988 8402 0001 3790



Ordainketak batera egingo dira, alegia, ikastetxe bakoitzak ordainketa bakarra egingo du, partehartzaile guztien kuotak hor sartuz. **Ordainketaren titularra ikastetxea izango da, ez da behin ere pertsona soila izango.**

NICDO S.L. enpresatik, jasotako ordainketa bakoitzari dagokion faktura egingen da ikastetxeen izenean.

OHARRAK:

1.- Plazen esleipena aurreinskripzioan zehaztutako epeen barruan aurkeztutako eskaera guztien artean **ZOZKETA** eginez erabakiko da.

Aurreinskripzioen kopuruak eskainitako plazen kopurua gaindituko balu edo aurrekontu nahikorik ez balego, antolakuntzak zenbait ikastetxeri ezezkoa emateko eskubidea izanen du. Kanpoan gelditzen diren ikastetxeak itxaron zerrendan geldituko dira. **Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasle kopuru gehien duten ikastetxeek, kaltetutako egoera ekonomikoan dauden ikasle-tasa gehien duten ikastetxeek eta muturreko, garrantzitsuko edo arrisku handiko despopulazio egoeran dauden udalerrietako ikastetxeek itxaron-zerrendan lehentasuna izanen dute (*)**. Itxaron zerrendan lehentasun orden bat zehazteko baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeen artean zozketa bat egingen da.

(*) *Hezkuntza Departamentuak jasotako estadistika-datuetan oinarritutako kaltetutako egoera ekonomikoan dagoen ikaslekoa duen ikastetxea (%)*. Toki-Administrazioa eta Despopulazioa Departamentuko Zuzendaritza Orokorrak egindako, eta 2022ko otsailan eguneratutako “Nafarroako despopulazio arriskuan dauden Zonaldeen Mapa. Despopulazioaren zonifikazioa eta kategorizazioa udalerriak”, lanean oinarritutako muturreko, garrantzitsuko edo arrisku handiko despopulazio egoeran dauden udalerrietako ikastetxeak.

2.-Kanpoan gelditzen diren ikastetxeek hurrengo urteetan lehentasuna izanen dute.

3.- **ZOKETA URRIAREN 6AN** eginen da eta ondoren, antolatzaileek emaitza mail bidez jakinaraziko die ikastetxeei. **Plazak esleitu ondoren, zilegi izanen da antolatzaileek, behin betiko izen-emateak aztertu ondoren, beharrezkoak diren aldaketak egitea. Aldaketa horien berri, halakorik suertatuz gero, dagokien ikastetxeei emango zaie.**



4.- **Esleitutako plazei uko egin** nahi izanez gero, 2026ko urriaren 16a baino lehen egin beharko litzateke eta, hurrengo urteetan lehentasuna izateko eskubidea galduko litzateke. Esleitutako plazei uko egitea data honen ondoren eginez gero, ondoko **zigorrak** ezarriko dira:

- Urriaren 17 eta azaroaren 30 bitarte: ikastetxeak aurreinskripzioa egin duten partehartzaile guztien plaza erreserbako 20€ak ordaindu beharko ditu.

- Abenduaren 1etik aurrera: ikastetxeak izena eman duten partehartzaile guztien kuotaren erdia ordaindu beharko du. Diru honekin antolakuntzatik konpromezuan hartutako gastuak ordainduko dira (ostatuak, begiraleak, ...).

5.- DIRU-ITZULERAK:

- Bajaldi justifikatuak: Behin izen-ematea eginda parte hartzailearen batek, arrazoi justifikatu batengatik, parte hartu ezin izango balu, ikastetxeak arrazoi hauen berri eman beharko dio kanpainako zuzendaritzari, parte hartzaile horrek izan-emate kuota berreskuratzeko eskubidea izateko. **PLAZA ERRESERBA moduan finkatuko diren 20€ ez dira itzuliko**, kaltetutako egoera gizaekonomikoan dagoen ikasle baten kasuan salbu.

-Disziplinazko espediente baten ondorioz emandako bajaldiak: Ikastetxeak ikasleari egokitutako **disziplinazko espediente batengatik** bajaldiren bat egotekotan, 5 partehartzaile edo gutxiago badira, izen-ematean ordaindutako kopuruaren %50a berreskuratu ahal izateko, partehartze data baino 30 egun lehenago jakinarazi behar da. Bajaldien kopurua 5 baino gehiagokoa bada, izen-ematean ordaindutako kopuruaren %50a berreskuratzeko, bajaldi hauek partehartze-data baino 60 egun lehenago jakinarazi behar dira. Epe hauek betetzen ez badira, ez da diru-itzulerarik eginen.

6.- Elur gutxi bada edo eskiatzeko pistetara iritsi ezin bada, parte hartzen duten Ikastetxeek antolatzaileek diseinatutako “ordezko jardueren programa”, onartuko dute.

7.- Antolatzaileek jarrera desegokia duten parte-hartzaileak kanporatu ahalko dituzte, **Ipar Eskiko Eskola Kanpainako Bizikidetza Araudian** adierazten den bezala.

8.- **Kanpaina ongi aterako bada, IKASLEEK EZ DUTE SAKELEKO TELEFONORIK, MP3, MP4, ORDENAGAILU-ERAMANGARRIRIK, ARGAZKI MAKINA DIGITALIK, ... ekartzerik izanen.**

9.- Partehartzaileen artean diferentziarik ez sortzeko, ikasle bakoitzak **gehienez 10 €** ekartzea gomendatzen da.



12.- ORDEZKO JARDUEREN PROGRAMA

Elur gutxi egoteagatik, eski-pistetara iritsi ezinagatik edo eguraldi txarragatik eski-jarduera burutzea posible ez balitz, ordezeko jardueren programak honakoak barneratzen ditu:

IZABA – ERRONKARIBARRA:



- Orientazio jokoak Bagomalta-n
- Eskiaren inguruko bideo emanaldiak eta hitzaldiak
- Izabako Oroimenaren Etxera bisita
- Erronkaribarreko txoko desberdinetatik ibilaldi-jarduerak
- Irristketa eta ipar martxa
- Burgiko Almadiazainen Museora eta Ogibideen Ibilbidera bisita
- Erronkariko gazta nola egiten den ikasteko jarduera
- Gizarteratzea eta berdintasuna sustatzeko jarduerak
- Gymkhana eta orientazio jolasak
- Iratiko Basora irteera gidatua



OTSAGABIA – ZARAITZU IBARRA:



- Eskiaren inguruko bideo emanaldiak eta hitzaldiak
- “Orhipean” ikusentzunezkoa eta jolasak
- “Aiert” ikusentzunezkoa eta jolasak
- Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentroaren eskutik ibilaldi gidatuak egin edo gelako lanak burutu
- Irristaketa eta ipar martxa
- Gymkhana
- Zaraitzuibarreko txoko desberdinetatik ibilaldi-jarduerak
- Gizarteratzea eta berdintasuna sustatzeko jarduerak
- Irati-Abodin orientazio-froga
- Iratiko Basora irteera gidatua

